

SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.

HIZKUNTZAK ASMATZEN

JARDUERA MOTA

Jokoa.

LEKUA

Gela eta kanpo-espazioa.

ZER LANTZEN DA

- Naturaren ezagutza: naturan dauden elementuei erreparatu, kasu honetan, inurriak, zer diren, nolakoak diren...
- Ingurumenaren babes eta hobekuntzan aktiboki parte hartzera bultzatuko duten jarrera eta baloreak eraiki
- Laguntza eta elkarlan jarrera ikaskideekin
- Hizkuntza komunikatzeko bide bezala
- Interesa eta ekimena emanaldietan parte hartzeko

MATERIALA

Ez da materialik behar.

DESKRIBAPENA

Jarduera honetan, komunikazioa soilik ez dela ahoz egiten ikasiko dugu eta hizkuntza mota asko daudela eta sortu daitezkeela ikusiko dugu.

Hizkuntza bat asmatzeko gida

Ikasleek banaka, beste bizidun baten hizkuntza bat asmatuko dute, bizidun hauen ezaugarriei jarraituz.

Lehenik adibide bat ipiniko zaie eta adibidean oinarrituta, beraien hizkuntza asmatuko dute.

Adibidea: inurrien hizkuntza

Inurriak taldean bizi diren intsektu txikiak dira eta antenen bidez elkar komunikatzen dira, beraz, antenen ukipena da beraien hizkuntza.

Elkarri soilik bost mezu ematen dizkiete

- 1- Janaria topatu du.
- 2- Arrisku bat ikusi dut.
- 3- Janaria eta arriskuaren norabidea.
- 4- Janaria edo arriskuaren distantzia.

Agurra

Bi inurri topatzean, beti hasieran elkar agurtuko dute.

Ikasleak elkarren parean ipintzen dira eskuak altxa.

Esku bat bestearen kontra ukituko da hiru aldiz.

Mezua

Ostean beti mezua emango dio batak besteari

MEZUA	NOLA
<i>Janaria topatu du.</i>	Eskuin eskuarekin bestearen ezker eskua bi aldiz ukituko da.
<i>Arrisku bat ikusi dut.</i>	Eskuin eskuarekin bestearen ezker eskua oso azkar hamar aldiz ukituko da.
<i>Janaria eta arriskuaren norabidea.</i>	Bi eskuekin, bestearen pareko eskuetan kili-kili egingo da, ostean bi eskuak norabide batera bideratuko dira.
<i>Janaria edo arriskuaren distantzia.</i>	Eskuekin txalo egingo da, txalo bat pauso bat. Bi txalo oso azkar hamar pauso (distantzia handia bada).

Ulertuta?

Behin mezua eman ostean, jaso duenak mezua ulertu duen ala ez esango du. Ez badu ulertu, berriro emango zaio mezua.

MEZUA	NOLA
<i>Ulertu dut</i>	Eskuak zabaldu eta itxi.
Ez dut ulertu, errepikatu.	Eskuak gorantza begira ipiniko ditu,

Agurra

Eskuak goran dituztela, inurriek bere buruaren gainean buelta bat emango dute.

Egin zure hizkuntza

Behin adibidea ulertuta, ikasleek berdina egin ahal dute, beste bizidun bat aukeratuz eta eskuen ordeztan, oinak, gorputz osoa edo soinuak erabiliz.

Adibideak

- Txakurren hizkuntza isatsa erabiliz
- Erleen hizkuntza hankak erabiliz
- Zuhaitzen hizkuntza enborra mugituz
- Untxien hizkuntza "kikiki!" eginez
- ...

Rol-ean errazago sartzeko, kareta sortu ahal dira.

Hausnarketa

- Zein hizkuntza asmatu dituzue?
- Hitzak eta esaldiak behar al ditugu komunikatzeko?
- Beste bizidunak nola komunikatzen ote dira?